Erregistro-zenbakia / Nº Registro de Salida: 09S0018888
Espediente zenbakia / Nº de Expediente:09/C/39/0001486

## ESKAERETARAKO ETA HERRITARREKIKO HARREMANETARAKO BATZORDEA

**Gaia:** Frankismoaren Aurkako Kereilaren Aldeko Euskal Plataformaren izenean Josefa Berasategui andreak aurkeztutako eskaera, mozio bat izapidetzeko.

**Espediente-zenbakia:** 9/C/39/1486

Zure eskariaren inguruan, honen bidez jakinarazten dizut Gipuzkoako Batzar Nagusietako Eskaeretarako eta Herritarrekiko Harremanetarako Batzordeak, 2012ko azaroaren 9an egindako bileran, EBAZPEN hau onartu duela:

1. Gipuzkoako Batzar Nagusiek 1931.urtean zilegitasunez eratutako erregimen errepublikanoaren aurka, 1936ko uztailean Francisco Franco Behamondek zuzendutako altxamendu militar kolpista errefusatzen dute.

2. Gipuzkoako Batzar Nagusiek berrogei urteetan zehar disidentziaren arrasto guztiak bortizkeriaz, zapaldu zituen diktadura errefusatzen dute. Era berean, Erregimen honek askatasunaren aldeko borroka, gizarte justizia eta Euskal Herria zein Penintsula Iberikoko herri eta nazio guztien eskubide . nazionalei egindako zapalkuntza errefusatzen dute.

3. Gipuzkoako Batzar Nagusiek, kolpeari eta ondoren ezarritako erregimen faxistari emandako babesagatik, nekazaritza, industria zein finantza oligarkiak eta eliza katolikoaren hierarkiak izandako jokabidea salatzen dute.

4. Gipuzkoako Batzar Nagusiek 1977ko Amnistiaren Legeak suposatutako bidegabekeria salatzen dute. Lege honek frankisten zigorgabetasuna betikotu egiten du eta boterearen estrukturak garbitu gabe gelditzea ahalbideratzen du. Bereziki, diktaduraren aparatu judiziala eta hertsatzailea.(Ejertzitoa, Polizia eta Guardia Zibila).

## COMISIÓN DE PETICIONES Y RELACIONES CON LA CIUDADANÍA

**Asunto:** Escrito presentado por Dña. Josefa Berasategui en representación de la Plataforma Vasca para la Querella contra los Crímenes del Franquismo solicitando la tramitación de una moción.

**Nº de Expediente:** 9/C/39/1486

Con relación a su solicitud, le comunico que la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía de las Juntas Generales de Gipuzkoa, en su reunión celebrada el día 9 de noviembre de 2012, ha aprobado la siguiente RESOLUCIÓN:

1. Las Juntas Generales de Gipuzkoa condenan la sublevación militar-golpista dirigida por Francisco Franco Bahamonde en julio de 1936 contra el régimen republicano legítimamente constituido en el año 1931.

2. Las Juntas Generales de Gipuzkoa condenan el régimen dictatorial que durante cuarenta años reprimió a sangre y fuego todo vestigio de disidencia y lucha por la libertad, la justicia social y los derechos nacionales de Euskal Herria y el conjunto de pueblos y naciones de la Península Ibérica.

3. Las Juntas Generales de Gipuzkoa denuncian el papel jugado por las oligarquías agraria, industrial y financiera y la jerarquía de la Iglesia Católica, con su apoyo al golpismo, primero, y al régimen fascista instaurado después.

4. Las Juntas Generales de Gipuzkoa denuncian la injusticia que supuso la Ley de Amnistía de 1977, que consagró la impunidad de los franquistas y la no depuración de sus estructuras de poder, muy especialmente las referidas a los aparatos jurídico y coercitivo (Ejército, Policía y Guardia Civil) de la Dictadura.

5. Gipuzkoako Batzar Nagusiek 1977ko Amnistiaren Legea baliogabetzeko galdegiten du. Gipuzkoako Batzar Nagusiek 1936ko uztailaren matxinada militarra, erregimen faxista eta Estatuen terrorismoak eragindako errepresaliatuen EGIA-rekiko eskubidea bermatzeko, bere esku dauden neurriak abiatzeko konpromisoa hartzen dute: EGIAk erregimenaren oinordekoak historia berridazteko egiten ari diren saiakerei aurre egiteko balioko baitu. Gipuzkoako Batzar Nagusiek gizartearen kontrako krimenen arduradunekiko egun, mantentzen den zigorgabetasuna gainditzeko, JUSTIZIA efektiboarekiko eskubidea bultzatzeko konpromisoa hartzen dute. Era berean, Gipuzkoako Batzar Nagusiek, frankismoek milaka biktimei egindako kalteagatik, ERREPARAZIO duina eta ez baztertzailearekiko eskubidea sustatzeko bere esku dauden neurriak martxan jartzeko ardura hartzen dute. Bukatzeko, EZ ERREPIKATZEKO BERMEA bultzatzeko konpromisoa hartzen dute, aldaketa sozio-politikoak ahalbideratzeko neurriak ezartzearekiko gizartearen eskubidea bermatzeko.

6. Gipuzkoako Batzar Nagusiek, konpromisoaren ildo honetan, babesa adierazten diote 4591-10 kausari. Zehazki "N.N s/GENOCIDIO" izenpetua dagoena, Buenos Aireseko dagokion epaitegian Maria Servini de Cubria epaileak daramakiena.

7. Gipuzkoako Batzar Nagusiek herritarrei, frankismoaren krimenen kontrako kereila babesteko deia egiten diegu. Bai kereilatzaile bezala errepresaliatuak izan zirenak edo beraien senideak, bai diktaduraren kontrako salaketa eta krimen zein kriminalen kontrako kereilarekiko atxikimendua adieraziz.

5. Las Juntas Generales de Gipuzkoa requieren la anulación de la Ley de amnistía de 1977 y se comprometen a adoptar las medidas necesarias para garantizar a los represaliados y represaliadas por la rebelión militar de julio de 1936, el régimen franquista y el terrorismo de estado, el ejercicio de su derecho a la VERDAD sobre aquel régimen para contrarrestar los intentos de rescribir la historia que se vienen realizando por sus herederos; el derecho a la JUSTICIA efectiva mediante la que se pueda superar el actual estado de impunidad de los responsables de los crímenes de lesa humanidad cometidos; y el derecho a una REPARACIÓN digna y no discriminatoria por las vulneraciones causadas a los centenares de miles de víctimas del franquismo; y, por último, el derecho del conjunto de la sociedad a que se implementen medidas de cambios socio-políticos, jurídicos e institucionales como garantías de no repetición.

6. En esta línea de compromiso, las Juntas Generales de Gipuzkoa manifiestan su apoyo y adhesión a la Causa 4591-10 caratulada "N.N. s/GENOCIDIO" del juzgado correspondiente de la ciudad de Buenos Aires, que lleva adelante la magistrada María Servini de Cubría.

7. Las Juntas Generales de Gipuzkoa animan a la ciudadanía a apoyar la Querella contra los crímenes del franquismo, bien personándose como querellantes quienes fueron directamente represaliados o bien manifestando su denuncia de la Dictadura y su adhesión a la Querella contra sus crímenes y criminales.

**Donostian, 2012ko azaroaren 9an**

**LEHENDAKARIA**

**Sin.: Lohitzune Charola Gurruchaga**

**JOSEFA BERASATEGUI AND.**
**FRANKISMOAREN AURKAKO KEREILAREN ALDEKO PLATAFORMA**